

**ALKATETZA  
DEKRETUA**

2020 000001191

**Espediente-zenbakia:** 2020/IDA\_DEK0626**Xedea:** SOLUZIO HIDROALKOHOLIKOEN EROSKETA.  
**ref:** IDA\_DEK\_626 (109-PRE/20).**Aurrekariak**

**Lehenengoa:** COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauen egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua emon eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak beregatzeko.

**Bigarrena:** COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zan.

**Hirugarrena:** 2019ko martxoaren 24ko 816 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, COVID-19ak sortutako osasun egoera kudeatzeko, Lehendakariaren martxoaren 13ko 6/2020 Dekretuaren eta Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz, emergentzia egoera aldarrikatzea erabagi zan, onartutako Alarma Egoerak iraun bitarteko eraginagaz.

**Laugarrena:** COVID-19ak sortutako osasun krisiari aurre egiteko, baharrezkoa da, emergentziaz, hornidura hau kontratatzea.

**Hori horrela, SANI&SANIGROUP SL B95680625 enpresearen 2020-04-23ko 1-00076 data eta zenbakidun 326,70 euroko aurrekontua aurkeztu dau Udal Arrisku Teknikariak.**

**Argudioak**

**Lehenengoa:** 2020ko martxoaren 17an 7/2020 Errege Lege Dekretuaren 16. artikuluan zera jasotzen da: "1. La adopción de cualquier tipo de medida directa o indirecta por parte de las entidades del sector público para hacer frente al COVID-19 justificará la necesidad de actuar de manera inmediata, siendo de aplicación el artículo 120 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.

2. De acuerdo con la previsión establecida en el párrafo anterior, a todos los contratos que hayan de celebrarse por las entidades del sector público para atender las necesidades derivadas de la protección de las personas y otras medidas adoptadas por el Consejo de Ministros para hacer frente al COVID-19, les resultará de aplicación la tramitación de emergencia. En estos casos, si fuera necesario realizar abonos a cuenta



por actuaciones preparatorias a realizar por el contratista, no será de aplicación lo dispuesto respecto a las garantías en la mencionada Ley 9/2017, siendo el órgano de contratación quien determinará tal circunstancia en función de la naturaleza de la prestación a contratar y la posibilidad de satisfacer la necesidad por otras vías. De la justificación de la decisión adoptada deberá dejarse constancia en el expediente(...)"

**Bigarrena:** 2020ko martxoaren 24ko 816 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez aldarrikatutako Emergentsia egoerak, besteak beste, kontratazioan dauka eragina, beti be COVID-19ak sortutako egoeraz lotura zuzena daukeen kasuetan.

Eta esleipen honegaz, COVID-19ak sortutako egoerari aurre egiteko, behar-beharrezkoa dan **10 litroko 5 unitate unitate gel hidroalkoholikoaren hornidura** kontratatu gura da, **Arrisku teknikariaren 2020-05-19ko txostenean agertu bezala.**

**Hirugarrena:** Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 120. artikulua araber, emergentsia egoera beharrezkoak diran kontratazioak egin ahal izateko, ez da beharrezkoa kontratazio espedientea izapidetzea, ezta kreditu nahikoa izatea.

Eta kontratuaren exekuzioa hasteko epea, ezingo dau izan hilabete baino handiagoa.

**Hirugarrena:** Esleipena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erakunde Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.m artikulua eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren araber, kontratua esleitzeko ahalmena alkateari jagoko.

### Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta honako hau erabagi dot

**LEHENENGOA:** 10 litroko 5 unitate unitate gel hidroalkoholikoaren hornidura kontratua, **emergentsiaz, SANI & SANI GROUP SL B95680625 IFZ zenbakidun enpreari esleitzea, 5,40€/litroko prezioan, hau da, 270,00€ gehi BEZ%21ari jagokozan 56,70€. Danetara: 326,70 euro.**

**BIGARRENA:** 326,70 eurotako gastuari aurre egiteko kreditu nahikoa ez dagoenez, erabagi hau hartzen danean, jagokon kreditu zuzkidura egiteko agindua emotea Ekonomia Sailari.

**HIRUGARRENA:** Esleipendunari kontratua berehala exekutatzeko agindua emotea eta, ohartarazotea, kontratuaren exekuzioa erabagi honen jakinarazpena jaso eta gehienezko hilabeteko epean hasiko ez baleu, esleipena bertan behera geratuko dala.



**BOSGARRENA:** Esleipendunari, lehiatzaileari, kontu hartzaileari eta diruzainari erabagia jakinarazotea eta kontratugilearen profilean argitaratzea.

**SEIGARRENA:** Erabaki hau kontratugilearen profilean argitaratzea, dagokion publizitatea izan dezan.

**ZAZPIGARRENA:** Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

Alarma egoera dela eta, erabaki honek eragina izango du apirilaren 1eko 2020/907 Alkatezta Dekretuaren arabera eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 3. Xedapen Gehigarriaren arabera.

Debido al estado de alarma, esta resolución tiene los efectos contemplados en el Decreto de Alcaldía 2020/907 de 1 de abril y en la Disposición Adicional 3ª del Real Decreto 463/2020 de 14 de marzo.

**Oharra:** sinadurea eta datea orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E4000434D500G0S0X2Y3Z8O3

**Sinadurea eta data**

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 20/05/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/05/2020  
14:12:48

EXPEDIENTE ::  
2020IDA\_DEK0626

Fecha: 19/05/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

